



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

HASI DA TXOTX EGITEKO GARAIA ASTIGARRAGAN

Arraunaren munduan aski ezaguna den Jose Luis Kortari egokitu zaio aurten Astigarragan sagardo berriaren eguneko lehen txotxa egitea. Lehorteeek eta euriteek sagarrondoetan eragina izan badute ere, aurtengoak kalitateari eutsi diola zehaztu zuten Sagardun partzuergoko kideek. Era berean, Gipuzkoako herri horretan sagardogintzak duen garrantzia nabarmentzeko eta bultzatzeko helburuarekin jaio diren bi proiektu aurkeztu zituzten.